

GIL 8 Urbiako sakonunea



Urbiako sakonunearen hiru dimentsioko maketa.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 57' 43,46 " N'

Long.: 2° 21' 8,48" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 552.821,07 m

Y: 4.756.806,54 m



Nola iritsi

GIL hau Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorraren mendebaldeko muturrean dago, Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren bihotzean. Puntu horretara, zenbait tokitatik irits daiteke:

Oñati herritik, hartu Arantzazuko santutegira doan errepidea, eta, handik, igo oinez Urbiaraino daraman bide seinaleztatutik.

Zalduondo herritik, hartu Zumarraundi aldera eta petroleroen plataformara doan errepidea, eta, handik, igo bide seinaleztatutik. Zumarraunditik Urbiara igotzen den baso-bide bat badago.



Urbiako sakonunea (Argazkia: 'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Eusko Jaurlaritza/Mikel Arrazola').

Araia herritik, Ajuriako fabrika zaharretik, hartu Aratzerantz doan bidexka Askosoroiraino, eta hartu PRA12 ibilbidea Arantzazurantz; Urbiatik pasatzen da.

Zegamatik, hartu Zegama eta Altsatsu lotzen dituen GI-2637 errepidea Otzaurte gaineraino. Puntu horretan, desbideratu Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren sarrerarantz, eta egin aurrera 5,6 km, gutxi gorabehera, Aldaolako parkingera iritsi arte. Handik, igo oinez GR-121/GR-283 seinaleak dituen bidetik, gurutzatu San Adrian leizea eta segi 7 km inguru Urbiara iritsi arte.

GILaren deskribapena

Urbiako sakonunea Aizkorri mendigunearen erdialdean dago, zonarik altuenean, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorrean. Oinplano obalatu luzangako zona hondoratu zabal bat da, ipar-mendebaldetik hego-ekialderako norabidea duena; 4 km-tik gorako luzera du, eta 1 km zabal da, eta 300 m-tik gorako desnibeletako erliebe handiz inguratuta dago. Sakonunearen parterik iparraldekoenak hondo lau eta irregularra du, Behe Kretazeoko kareharri tupatsu eta buztintsuen gainean landua. Sakonunea erreka oso mehartu batek zeharkatzen du; haren urak, hegoaldean, sarbegi batean desagertu, eta lurpeko zirkulazio-sistema batean sartzen dira, zeina Araian, Araban, kanporatzen baita.

Sakonunearen hegoaldea Urgondar konplexuko arrezife-kareharriek okupatzen dute, eta, haien gainean, morfologia karstiko ikusgarriak garatu dira. Tamaina askotako dolinak, arrakalak, sarbegiak eta lapiazak garatu diren zonak ikus daitezke; multzoak itxura uniformeak du, eta edertasun bitxiko forma irregularrak sortu dira.



Urbiako sakonunea; hondoan, Aizkorri eta Aketegi mendiak. Desnibela 300 m-tik gorakoa da. Harana drainatzen duen erreka baten sarreraren desagertzea da.

Kubeta erraldoi honen genesis konplexua izango da, ziur asko, eta orientazio estrukturalak eta unitate nagusien litologiak baldintzatuta egongo da, baina zalantzarik ez da kareharrien disoluzio karstikoak zeregin erabakigarria izan duela. Disoluzio horren ondorioz, sakonunea, gaur egun, deskaltzifikazio-buztinen geruza lodi batek estaltzen du, eta tokiaren ezaugarria den belardi berdeen paisaia eratu du.

Behatzeko punturik onena

In situ edo Aizkorriko mendilerroaren gailurretatik.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 65, GIL 81, GIL 82.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 60, GIL 62.

Valoración del LIG

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa			●	
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: Zonak lotura estua du artzaintzarekin eta Arantzazuko santutegiarekin.					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- *Puntos de interés geológico de Gipuzkoa*. GFA. 1992
- ALOÑA MENDI, (G.E. 1974). *Trabajos sobre el karst de SW de Guipuzcoa*. Oñati. Biblioteca Municipal arg., 101. or.
- ALOÑA MENDI ESPELEOLOGIA TALDEA. (1999). "El karst de Aloña-Aizkorri-Aratz". Karaitza, 8. UEV/EEE Donostia, 1.733. or.